

SUBORDINAZIOAZ: Independentzia vs dependentzia. Askatasuna vs subordinazioa.

Gatazka nazionala dikotomikoa da. Edo estatu independente bat dugu, edo kolonizazio prozesuak aurrera jarraituko du herri hau desagerrarazi arte.

Zenbaitzuek gatazka nazionalari egiazkoa ez den konplexutasun bat atxiki nahi diote. Haiek diote ez dela posible, beste lehentasun batzuk daudela, ez dela une egokia, zer-nolako estatua nahi dugun zehaztu behar dugula lehenik, Europar Batasunean estatuen presentziak bestelako errealitate eta esangura bat duela. Aitzakiak baino ez dira halakoak.

Zeren has baikaitzke premisa simple batetik: gu herri konkistatua, okupatua eta kolonizatua gara. Eta etsaiak guk baino hobeto oroitzen du historia.

Haien pausoz pausoko konkistak, eta gure erresistentziak, etengabeak izan dira. 1200. 1512. 1620. 1789... Baliteke kolaboratzen duten alderdiek ahanztea, ez baitute sinesten herrian, ez baitute oroitzen herri honen borroka, baina gure arerioek ez dute inoiz ahanzten. Eta haien estatu politikako lehentasuna okupazioa da.

Baina gure arerioek ongi dakite okupazioak erresistentzia ekartzen duela. Haientzat arazoaren soluzioa kolaborazioa da: gure okupazioa nolakoa izango den negoziatzea, hala aske garela sinesteko guk. Erabakitze askatasuna dugu, hau da, nola zapalduak izango garen erabakitze. Hori nahikoa ez, eta gutako bakoitzak, boza ematen duenean, okupazio egoera hau onartu eta legitimatzen du.

Imajinatu dezagun norbait zure etxean sartzen dela, okupatzen duela eta lekua kentzen dizula. Eta, gatazka ekiditeko, txoko batekin konformatzen zarela, negoziatuz ea txoko hori apur bat handiagoa edo txikiagoa izango den. Une horretan, okupatzailearen joko arauak onartu dituzu. Une horretan, onartu duzu etxea ez dela zurea, okupatzailearena baizik.

Imajinatu dezagun zein litzatekeen egoera gobernu arrotzen ordezkariak edo Partido Popular, Partido Socialista, Renaissance, Les Républicains ... alderdiek soilik izango balute errepresentazio politikoa... Denbora kontua litzateke, okupatzailea egoera ahulean aurkitzen denean, herria berriz altxatu eta askatzea.

Baina orain presondegia kudeatzen laguntzeko alderdiak ditugu (EAJ, EHBildu), euskal kutsukoak edo. 800 urteko kolonizazio historiak erakusten duenaren kontra, oraingoan bai, espainiar eta frantziar okupatzaileak intentzio onekin datoz. Haiekin negoziatu behar dugu.

Alderdi autonomikoak ez dira independentistak. Zeren independentistak izateko hiru ezaugarri bete behar baitituzte:

1. Estrategia independentista bat eduki behar dute, noski.
2. Batasun nazionala bilatu behar dute, bi estatu inperialista handiren aurka herri bateratu batek soilik egin dezake eta.
3. Estrategiaren erabakimena hauteskunde joko autonomikotik at mantendu behar dute, hau da, euskaldun independentisten erabakigune bat eduki behar dute.

Kontrara, askapen nazionalaren bidean oztopo diren hainbat ezaugarri dituzte alderdi politiko horiek:

- Zatiketa nazionala bilatzen dute. Ika-mika sustatuz eta manipulazioaren bidez, klase, sexu edo jatorriaren arabera gatazka artifizialak eraikiz.
- Hauteskunde kalkuluan harrapatuak daude. Gehiengoa (baina ez batasuna) bilatzen dute herri kolonizatu, minorizatu eta desilusionatu batean. Gai dira hauteskundeetako gehiengo hori osatzeko gure zapaltzaileekin, hauteskunderik hauteskunde egiten duten bezala.
- Ideologia exogenoak barneratzen dituzte, instituzio multinazionalatik datozen erabakiak goitik behera onartuz eta askapen nazionalaren gaineratik lehenetsiz.
- Egunero onartzen dute okupazioa, hura legitimatuz eta normaltasun irudia emanez.
- Gai dira euskal gudariak torturatu eta hil zituztenekin hitzarmenak egiteko, baina ez dira gai bestelako erakunde abertzaleekin indarrak batzeko.

Hortaz, askapen nazionala ezin da teilatutik hasi. Gutxienez, oinarri indartsuak sortu behar dira; herria batzetik eta instituzio propioak izatetik hasi behar dugu. Utz diezaiozun behingoz gure herria galbidera daramatenekin negoziatzeari, eta ekin diezaiozun gure instituzio propioetan gure erabaki propioak hartzeari.